



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala

Zk./ Nº 2026/1643

Data / Fecha 2026/06/11

Ebazpena / Resolución

ALKATE EBAZPENA

Andoaingo Udalaren eta Lasalle-Berrozpe Ikastetxearen arteko lankidetza hitzarmen proposamena ikusirik, ikastetxeko oinarrizko edo lehen hezkuntzaldiari eta haurren hezkuntzaldiari dagokien eraikinen mantenimendu eta konponketa gastuentzat dirulaguntza emateko.

Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Lasalle-Berrozpe Ikastetxearen artean proposatutako lankidetza hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: Ikastetxeko oinarrizko edo lehen hezkuntzaldiari eta haurren hezkuntzaldiari dagokien eraikinen mantenimendu eta konponketa gastuentzat.

Dirulaguntza: 52.824€.

Partida: 1.0500.481.326.20.01.2026 (377)

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Lasalle-Berrozpe Ikastetxeari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Hitzarmena lehen eta laugarren hitzbaktan azaltzen denaren arabera, Lasalle-Berrozpe Ikastetxearentzat 2026. urterako Udalak kontsignatuta duen diru kopurua 52.824 euroakoa, lauhileroko txostena Udalak eskuratu eta hilabete burutu baino lehen ordaitzea joatea 377 zenbakia duen diru kontuaren kargura.



Andoaingo Udala

5.- Ebazpen hau Lasalle-Berrozpe Ikastetxeari eta udal Kontuhartzailletza lantsailari helaraztea.

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinaduraren datan.

Nire aurrean,

IDAZKARIA

ALKATEA

